




Villabonako Udala



## 2012ko SANTIO JAIEN BALORAZIOA

2012ko Santio jaiak bukatu ondoren, lehendabiziko balorazioak egin ziren. Alde batetik, Villabonako Udalaren gobernuan dagoen udal taldeak egin zuen berea, eta beste zenbait departamentuk ere, hala nola Udaltzaingoak eta Kultura Sailak. Horrez gain, festen antolakuntzan parte hartu duten gainerako eragile guztien balorazioa ere jaso nahi genuen, eta horretarako bilera bat deitu genuen irailaren 11n. Dena den, bilera hori ez zen egin, oso jende gutxi agertu zelako deialdira; nolana ere, bilkurara etortzerik izan ez zuten eragile pare batek e-mailez helarazi ziguten beren balorazioa. Oraingoan beste saiakera bat egin nahi dugu, eta gure asmoa da jaien balorazioaren inguruko bilera honek Kulturaren Ados! lan-mahaiak bultzatzeko balio izatea. Ea denon artean lortzen dugun.

Ekintzaz ekintzako balorazioa oso beharrezkotzat jotzen dugu, akatsetatik ikasiko badugu; dena den, orain arte jaso ditugun balorazioetan argi ikusten da bi eztabaida oso presente daudela: jaietako gastuak bizitzen ari garen krisialdi egoera honetara egokitu beharra eta jaien iraupenaren inguruko eztabaida.

Guk, aurten bertan ere, ahalegin berezia egin dugu jaietako gastuak kontrolatzeko. Hasiera batean, gure asmoa jaietako aurrekontuan jasotako baino gehiago ez gastatzea zelako. Gero, gainera, ekainean jakin genuen Foru Aldundiaren foru funtsetik –udalen diru-iturri nagusia– jasoko genuen diruaren aurreikuspenak izugarri jaitsi zirela, eta horrek eramango zuela Villabonako Udalera uste baino 300.000 € gutxiago jasotzera. Dударik gabe, horrek udaleko sail guztien ahalmen ekonomiko murriztuko zuen. Dena den, gastuari dagokionez behintzat, gure helburuak bete ditugula esan dezakegu; jaien antolakuntzarekin zuzenean lotuta dauden bi partidetan, jaietako ekintzengatik (92.000 €) eta azpiegiturengatik (40.000 €), aurrekontuan jasotakoa baino gutxiago gastatzea lortu dugu, batez ere azpiegiturei dagokienez. Hala ere, hori ez da nahikoa izan izan, eta kultur programazioan aurreikusita zeuden zenbait gauza ezin izan dira egin, foru funtsean izandako aurreikuspen negatibo horren ondorioz.

Beraz, esan bezala, abenduaren 4an jaietako ekintzen inguruko ohiko balorazioa egingo dugu, eta aurrerago, bi eztabaida ardatz horiei helduko diegu: jaietako gastuak eta jaien iraupena. Espero dut eztabaida mamitsuak eta onuragarriak izan daitezen.

Villabonan, 2012ko azaroaren 22an

EUSKARA ETA KULTURA ZINEGOTZIA



Izpta.: Nora Urbizu Arozena